

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 48/2015 Foru Dekretua, abuztuaren 4koa. Honen bidez, aldatu egiten dira atxikipen mota jakin batzuk

Foru Dekretua honen xedea da konturako diru sarreraren eta atxikipenen tasa jakin batzuk aldatzea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan, erregimen arrunteko araudira egokitzearen. Zehazki, aldaketa honek berekin dakar ehuneko puntu erdi murriztea atxikipen tasak 2015. urte honetan geratzen den zatirako, inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partizipazioen eskualdaketa edo ordainketen ondoriozko ondare irabazien gainean eta higiezinaren akuratzeko eta berrakuratzeko gainean aplikatzekoak diren atxikipen tasak, hain zuzen.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak honi buruz egindako txostenak aztertu dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. PEFZaren erregelamendua aldatzea

Aldatu egiten da PEFZaren Erregelamendua onartzen duen Foru Dekretuaren bosgarren xedapen gehigarria (40/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1koa), eta honela geratzen da:

“Bosgarren xedapen gehigarria. Atxikipenen eta konturako ordainketen tasak, 2015. urtean inbertsio kolektiboko erakundeetako akzio edo partizipazioen eskualdaketa edo ordainketen ondoriozko ondare irabazien gainean eta higiezinaren akuratzeko eta berrakuratzeko gainean aplikatzekoak.

Atxikipenen eta konturako ordainketen ehunekoak, erregelamendu honen 93. eta 97. artikuluetan aurreikusitakoak, ehuneko 20 izango dira atxikipena edo konturako ordainketa egiteko betebeharra 2015eko abuztuaren 1 baino lehen sortua bada. Atxikipena edo konturako ordainketa egiteko betebeharra data horren ostean sortua bada, atxikipenaren ehunekoa 19,5 izango da.”

Bigarrena. Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamendua aldatzea

Xedapen gehigarri berria sartzen da PEFZaren Erregelamendua onartzen duen Foru Dekretuan (40/2014 Foru Dekretua, abuztuaren 1koa), hamabigarrena, hain zuzen; hona hemen:

“Hamabigarren xedapen gehigarria. 2015ean kasu berezietan aplikatzekoak diren atxikipenen edo konturako ordainketen ehunekoak. Erregelamendu honen 56. artikuluan c) eta d) hizkietan aurreikusten diren atxikipenen edo konturako ordainketen portzentajea ehuneko 20 izango da, atxikipena edo konturako ordainketa egiteko betebeharra 2015eko abuztuaren 1a baino lehen sortua bada. Portzentaje hori 19,5 izango da, atxikipena edo konturako ordainketa egiteko betebeharra data horren ostean sortua bada.”

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen xedapen guztiak..

AZKEN XEDAPENA

Foru arau hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, haren m-
nuetan ezarritako berariazko ondorio eta guzti.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko abuztuaren 4a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSE LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasuneko zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ